

5/2017 AKTA
NAFARROAKO UDALERRIEN ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEAK
EKAINAREN 13an EGINDAKO BILERA

BERTARATUAK:

PRESIDENTEA:

Pablo Azcona Molinet jn., *Lodosako alkatea*

1. PRESIDENTEORDEA:

Raquel Garbayo Berdonces and., *Cintruenigoko alkatea*

2. PRESIDENTEORDEA:

Jesús M^a Rodríguez Gómez jn., *Ribaforadako alkatea*

BATZORDEKIDEAK:

Javier Albizu Sanz jn., *Artazuko alkatea*
Aritz Romero Ruiz jn., *Iruñeko zinegotzia*
Ángel Obanos Galar jn., *Artikako burua*
Cruz Moriones Uriz jn., *Ustaizeko burua*
Nieves Recalde Zaratiegui and., *Etxagueko burua*
María Vicenta Goñi Azanza and., *Gesalazko alkatea*
Ur Algueró Chivite jn., *Aresoko alkatea*
Unai Lako Goñi jn., *Agoizko alkatea*
Mario Fabo Calero jn., *Martzillako alkatea*
Ezequiel Martín Muxika jn., *Atezko alkatea*
Arturo Goldaracena Asa jn., *Tafallako alkatea*
Karmele Marañón Chasco and., *Arbizuko alkatea*

Ezin etorria adierazi dute:

Eneko Larrarte Huguet jn., *Tuterako alkatea*
Alfonso Etxeberria Goñi jn., *Eguesibarko alkatea*

IDAZKARIA:

Berta Enrique Cornago and.

Iruñean, bi mila eta hamazazpiko ekainaren 13an, arratsaldeko bostetan, bigarren deialdian, aldamenean adierazitakoak bildu dira Nafarroako Udalerriaren eta Kontzejuen egoitzan (Tutera kalea, 20, 3. solairua, Iruña), Batzorde Betearazleko kideak baitira. Bilkuraren buru Pablo Azcona Molinet jn. aritu da, eta idazkari, berriz, Berta Enrique Cornago and. Hona hemen

EGUNEKO GAI ZERRENDA

- 1.- Aurreko bilkurako akta onestea.
- 2.- Informazioa batzorde eta kontseilu sektorialen gainean.
- 3.- Atxikimenduak NUKFra.
- 4.- NUKFren Batzar Nagusi Bereziaren deialdia eta eguneko gai zerrenda.
- 5.- 2017ko lehenbiziko sei hilekoan egindako jarduketaren kudeaketa-txostena.
- 6.- Nafarroako toki administrazioaren berrantolatzearen prozesuaren parte-hartzailearen emaitzei buruzko agiria.
- 7.- NUFKren, La Caixa fundazioaren eta Caja Navarra fundazioaren arteko hitzarmena, 2017an hirietako espazioak lehengoratzeko proiektuetarako.
- 8.- Presidentearen informazioa.
- 9.- Galde-eskeak.

1. PUNTUA. Aurreko bilkurako akta onestea.

Aurreko bilkurako aktaren kopia igorrita deialdiarekin batera, aldeztu aurretik irakurri beharrik gabe, presidentek galdetu du Batzorde Betearazleko inork oharrik duen haren inguruan.

Ez da oharrik egin.

ERABAKI DA: 2017ko maiatzaren 9ko bilkurako akta onestea.

2. PUNTUA. Informazioa batzorde eta kontseilu sektorialen gainean.

Honako informazio hau eman da egindako batzorde eta kontseilu sektorialen gainean:

- **SITNA Forua sortzeko lan taldea** (2017/05/12). Lan talde bat eratu da, honako hauek osatua, SITNA Forua garatzeko helburu nagusiarekin: NUKF, Nafarroako Estatistika Institutua, Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza Nagusia, Tracasa, Nafarroako toki ekintzaren lau taldeak eta SITNA. Jardunaldi bat egingen da, urrian ziur aski, toki esparruan lurralde informazioaren sistemak erabiltzearen esperientziak zabaltzeko.
- **Miguel Induráin fundazioaren patronatua** (2017/05/18). Patronatua eratu zen, eta haren gobernu organoak sortu eta arautu ziren. Jarduketa planak eta 2017ko aurrekontua ere onetsi ziren.
- **Nafarroako Gardentasunaren Kontseilua** (2017/05/15). Gardentasunaren arloko erreklamazio baten berri eman zen, eta Kontseiluaren funtzionamendurako barneko arauak landu ziren.
- **Lurralde Politikaren Gizarte Kontseilua** (2017/05/22). Ingurumenaren Zuzendaritza Nagusiaren antolamendu berriaren berri eman zen, LURSAREA-Nafarroako Jasangarritasunaren Agentzia aurkeztu zen, eta Kontseiluaren jardueren memoria onetsi zen.
- **Nafarroako Eskola Kontseilua (Osoko Bilkura)** (2017/05/24). Nafarroako hezkuntza sistemari buruzko txostena ezagutarazi zen, kontseilu horren funtzionamendu arauak aldatu gogo direla jakinarazi zen, eta Aniztasunari Arreta Emateko Plan Estrategikoaren berri eman zen.
- **Nafarroako Ingurumen Kontseilua** (2017/05/29). Ingurumenean Esku-hartzeari buruzko Foru Legea aldatzeko foru legearen aurreproiektuaren berri eman zen.
- **FEDER 2014-2020 Programa Eragilearen Jarraipen Batzordea** (2017/05/30). Batzorde horrek jarraipena egiten dio 2014-2020 Programa Eragileari FEDER funtsak aplikatzeko. Eskualde adimentsuaren strategiaren diagnostikoa aurkeztu zen, baita SODENAK ezarritako finantzazio tresnaren funtzionamendua ere. Bestalde, programako neurriak noraino gauzatu diren zehaztu zen.
- **Nafarroako Berdintasunerako Kontseilua** (2017/05/31). Jakitera eman zen 2017-2019 Estrategia prestatzen ari dela, emakumeek parte-hartze soziala eta politikoa izan dezaten Nafarroako Foru Komunitateko politika publikoetan, eta Berdintasunari buruzko Foru Lege berri baten aurreproiektuan ari direla lanean.
- **Nafarroako Kirolaren Kontseilua** (17/06/02). Kirol Profesionalei buruzko Legearen aurreproiektuan ari dira lanean. Jakitera eman zen Navarra Arena 2018ko irailean irekiko dela eta han kirol federazioen eta abarren bulegoak bilduko direla. Halaber, kirol jarduketan fiskalitatea ari direla aztertzen jakinarazi zen.
- **Nafarroako Gardentasunaren Kontseilua** (2017/06/05). Gardentasunaren arloko zenbait erreklamazio aztertu ziren eta Kontseiluaren funtzionamenduaren arauak prestatzen jarraitu zuten.
- **Nafarroako Osasunaren Kontseilua** (2017/06/06). Osasun arloko Arreta Programa aurkeztu zen eta jakitera eman zen lanean aritzen dela jarduketa integraleko programak ezartzeko.

ERABAKI DA: horretaz jabetzea.

3. PUNTUA. Atxikimenduak NUKFra.

Gaskueko kontzejuaren atxikimendu eskaera jaso da.

ERABAKI DA: aintzat hartzea Gaskueko kontzejuaren eskaera, eta, hortaz, hura NUKFko kide izatera pasa da, ondorioak izanik bilkuraren egunetik aurrera.

4. PUNTUA. NUKFren Batzar Nagusi Bereziaren deialdia eta eguneko gai zerrenda.

Presidenteak proposatu du NUKFren Batzar Nagusi Berezia egitea, jarduketa programa bete beharrez. Batzar horretan, kontuak onesteaz eta urteko lehenbiziko sei hilekoan egindako jarduketak jakinarazteaz gain, Nafarroako toki administrazioa berrantolatzeko prozesu parte-hartzailearen emaitzei buruzko agiria jakinaraziko da.

Horretarako, proposatu da NUKFaren Batzar Nagusi Berezia 2017ko ekainaren 30ean egitea, Iruña Park hotelean (Arcadio María Larraona kalea, 1, Iruñea), lehenbiziko deialdia 16:30ean izanik, eta bigarrena, berriz, 17:00etan, honako gai-zerrenda honekin:

1. NUKFaren 2016ko kontuak onestea.
2. 2017ko lehenbiziko sei hilekoan egindako jarduketaren kudeaketa-txostena.
3. Nafarroako toki administrazioa berrantolatzeko prozesu parte-hartzailearen emaitzei buruzko agiria.

ERABAKI DA: presidentearen proposamena onestea eta NUKFren Batzar Nagusi Bereziaren deialdia horri jarraikiz egitea.

5. PUNTUA. 2017ko lehenbiziko sei hilekoan egindako jarduketaren kudeaketa-txostena.

Presidenteak NUKFk urteko lehenbiziko sei hilekoan egindako jarduketaren berri eman du, deialdiarekin igorritako kudeaketa-txostenean biltzen den moduan. Zehaztu du, halaber, hura egindako jarduketaren aurrerapena besterik ez dela, eta, beraz, ez dela onetsi beharrekoa. Izan ere, abenduko Batzar Nagusiari dagokio 2017ko kudeaketa-txostena onestea.

ERABAKI DA: NUKFk urteko lehenbiziko sei hilekoan egin jarduketaz jabetzea.

6. PUNTUA. Nafarroako toki administrazioa berrantolatzeko prozesu parte-hartzailearen emaitzei buruzko agiria.

Presidenteak laburbildu du zein izan den toki entitateen iritzia biltzeko egin den prozesu parte-hartzailea.

Ondoren, prozesu horren bigarren fasean egindako jarduketak laburbildu dira, baita horretan lortutako emaitzen agiria ere, zein prestatu baita talde zuzentzailean eta eztabaidatzekoan elkarrekin izandako zenbait bileratako ekarpenekin. Orobat, jasota gelditu da ezen, emaitzen agiriaz gainera, gogoeta teknikoen agiria ere prestatu duela NUKFren talde tekniko batek, prozesuan azaldu diren zenbait gai teknikoren harira.

Ondoren, presidenteak esandakoan, hitza hartzeko txanda ireki da, ekarpenak egin ahal izateko, baina kontuan izanik ezin zaiola aldaketarik egin agiriari, prozesu parte-hartzailean sortutako taldeek onetsi dutelako.

Romeo jaunak adierazi du komeniko litzatekeela aldaketa txiki bat egitea agiriaren 11. orrialdeko 6. atalean, Iruñeko Hiria Hiriburutza Agiriari dagokionez, helburua izanik argiago zehaztea berrikuspena ekipamenduari dagokiola, baina ez, berez, Hiriburutza Agiriari.

Ondokoek, hitza hartzean, adierazi dute kontu hori argi dagoela, eta, esandako arrazoiak direla eta, ez dagoela agiria aldatzerik.

Presidenteak Etxeberria jaunak igorritako ekarpen baten berri eman du, hura ezin izan baita bilerara joan. Ekarpen horren arabera, agiriak gogoeta bat izan beharko luke funtsaren banaketaren gainean, jasota geldí dadin beharrezkotzat jotzen dela banatzeko modua bidezkoa izatea, egun zenbait udalerrik pairatzen duten desegokitasun eza orekatzeko, urte batzuetan funtsaren igoera izoztu baita eta formula ezin izan baita aplikatu oso-osorik.

Ekarpen horri dagokionez, berriz adierazi da ezin zaiola agiriari erantsi. Presidenteak, hala ere, adierazi du bi ekarpenak aktan jasoko direla.

Agiriari eta gogoeta teknikoei dagokienez, adierazi da Batzar Nagusiaren gai-zerrendarekin igorriko direla, toki entitate guztiei igorri ere, udabaltzako kide guztiei helaraz dakien.

Algueró jaunak esan du Arbuniés y Lekunberrik prestatutako txostenak ere igorri beharko liratekeela, argi gera dadin agirian jasotako guztia prozesuaren emaitzen ondorio dela.

Aldeko balorazioa eginik, presidenteak adierazi du hala egingen dela.

ERABAKI DA: Nafarroako toki administrazioa berrantolatzeko prozesu parte-hartzailearen emaitzen agiriaren berri jakitea.

7. PUNTUA. NUFKren, La Caixa fundazioaren eta Caja Navarra fundazioaren arteko hitzarmena, 2017an hirietako espazioak berreskuratzeko proiektuetarako.

Presidenteak proposatu du lankidetzaz hitzarmen berri bat sinatzea Caixarekin, helburua izan den duena hirietako espazioak berreskuratzeko proiektuak diruz laguntzea. Aurreko ekitaldietan izenpetutako hitzarmen bera da. Proiektua gauzatzeko, deialdi bat egin behar da, 2.000 biztanletik beherako toki entitateek finantzatu ahal izateko Gizarte Politiketako Departamentuaren edo Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren deialdiaren babesean gizarteratzeko asmoz kontratatutako langileek egiten dituzten jarduketetako materialak. Hitzarmen beraren arabera, NUKFk 90.000 euroko ekarpena jasoko du, oso-osorik proiektu horretan erabiltzeko konpromisoarekin.

Hura onetsia, deialdiaren kasuan kasuko oinarriak prestatuko dira, aurreko ekitaldietan onetsi direnen moduan, ezertan galarazi gabe aldaketaren bat egitea bertan sartu ahal izateko proiektuak aurkezten dituzten toki entitate guztiak. Batzorde Betearazleak onetsi beharko du deialdi hori.

ERABAKI DA: lankidetzaz hitzarmen hori onestea, eta, horrenbestez, gaitasuna ematea presidenteari hura sinatzeko.

8.PUNTUA. Presidentearen informazioa.

Presidenteak informazioa eman du gai hauen inguruan:

- **Euskara itzultzaile-teknikaria lanean hastea.** Aditzera eman da ezen, hautapen prozesua bukatu ondoan, Oskar Arana hautatutako izangaiarekin mintzatu dela. Ekainaren 15ean hastea proposatu zaio, baina hark eskatu du ekainaren 19ra arte atzeratzea. Hala ere, biharamunean jakinaraziko du lanean hasiko den ala ez, beste aukera batzuk aztertzen ari baita, esleitutako ordainsariak eta beste inguruabar pertsonalak direla eta.
- **Hiritarren segurtasunaren arloko kontsulta organoak berraztertzea.** Aditzera eman da hiritarren segurtasunaren arloko organoak, batzordeak eta kontseiluak berraztertzen ari direla Barne Departamentuan. Irizten da horietako asko bikoiztasunak direla, eta, ikusi denez Poliziei buruzko Foru Legea onesteko prozesuan, horrek araudiaren tramitazioa eta abar eragozten du. Horietako zenbaitetan udalen ordezkariak daude, eta, horregatik, diagnostiko horretan parte hartzea nahi dute.
- **Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko Foru Legearen aurreproiektua.** Aditzera eman da tramitatzen ari dela. Bilera batzuk egin dituzte Landa Garapenerako Departamentuko teknikariek eta NUKFk. Aurreproiektuko gai garrantzitsu batzuek eragina dute udalek jarduera sailkatuen arloan duten eskumenaren gainean.
- **Bilera Aragoiko Udalerrien eta Probintzien Federazioko presidentearekin eta idazkari nagusiarekin.** Aragoi eskualdeak sortzeko prozesua ezagutzeko, orain berraztertzen ari direna. Horretaz gain, bi federazioentzat interesgarriak ziren beste gai batzuk landu ziren.
- **Rural Kutxaren kostuen programa eskuratzea,** NUKFren, Kontuen Ganberaren eta Toki Administrazioaren Departamentuaren arteko lankidetzak hitzarmena bete beharrez. ANIMSAK jakinarazi digunez, baliozkotzeko prozesuan dago programa, baina, azkenean, ez dio heldu hitzarmen horri.
- **Toki administrazioa berrantolatzeko prozesuaren** agiria hurrengo ostiralean emanen zaio ofizialki kontseilariari.
- **Bilkura FORESNAko kudeatzailearekin.** Makaldiak ustiatzearen arazoa helarazi digu. Landa Garapenerako kontseilariarekin bildu nahi du gai hori lantzeko, eta arazo horren jakitun den toki entitateen ordezkariaren batek laguntzea nahi du. Halaber, kontatu digu jardunaldi bat egin nahi duela ustiategi horietarako berriazko aseguruaren inguruan.
- **Bilkura ANFASekin.** Bilkura horretan, helarazi digute arazoak dituztela orain finantzazioa lortzeko. Aztertu nahi dute posible ote den hitzarmenaren bat sinatzea toki entitateekin beren ohiko jarduna egiten jarraitzeko.

9. PUNTUA. Galde-eskeak.

Garbayo andreak adierazi du bere herrian arazo bat dagoela herri-lurrekin, eta beste toki entitateek arazo bera dutela, batez ere Erriberan. Gehitu du Landa Garapenerako Departamentuan jakinaren gainean daudela, baina on litzatekeela NUKFk horretan jardutea.

Orobat, adierazi du Cortesko alkateak idazki bat igorriko diela NUKFri eta Lehendakartzako eta Toki Administrazio departamentuei, azaltzeko zer egoeratan dagoen udalerria monteioari eta horrek egun udal horri dakarkion kostuari dagokienez.

Fabo jaunak galdetu du daturik ote dugun toki inbertsioen planaren barneko obren inguruan eta zer epe dagoen eskaerak ebazteko.

Presidenteak zehaztu du toki programazioaren eskaerak 1.470 direla guztira, eta sanferminen aurretik eginen direla behin-behineko esleipenak.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, presidente jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko arratsaldeko zazpiak direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta presidentearekin sinatu dut.

PRESIDENTEAREN ONIRITZIA,

IDAZKARIA,

Pablo Azcona Molinet jn.

Berta Enrique Cornago and.